



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZIENTZIA
ETA TEKNOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIA
Y TECNOLOGÍA

BIODIBERTSITATE, FUNTZIONAMENDU ETA EKOSISTEMEN GESTIOA MASTERRA

www.ehu.eus

AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Biodibertsitate, Funtzionamendu eta Ekosistemen Gestioa Unibertsitate Masterrak biodibertsitatea eta gure inguruko ekosistemen funtzionamenduan sakontzeko aukera eskaintzen du, baita gizakion jarduerak esparru horietan duten eragina ezagutu eta mehatxu nagusiak identifikatzeko ere. Masterraren helburua da unibertsitate tituludunen Ingurumen Biologia arloko trebakuntza osatzea; ikasleak ekosistemen egoera ekologikoaren ebaluazioan gaitzea; eta, ingurumena kudeatzeko tresna nagusiak, legezkoak zein teknikoak, eskuratzea.

Masterraren programak, besteak beste, ondoko gaiak jorratuko ditu: dibertsitate biologikoa, ikuspegi sistematikoa eta biogeografikoa, ekosistemen funtzionamendua, habitataren hondatzea eta zatikatzea, aldaketa globala, baliabide biologikoen ustiaketa eta erabilpen arrazionala, espezie mehatxatuak babesteko legedia, kartografia eta teledetekzioa.

SARBIDEA

Gradua edo Lizentzia Biologia, Biokimika, Ingurumen Zientziak, Itsas Zientziak, Farmazia, Geografia, Geologia, Medikuntza, Kimika edo Albaitaritzan. Nekazaritzako Ingeniaritza, Mendi eta Ingurugiro Naturaleko Ingeniaritza.

IRTEERA PROFESIONALAK

Ingurumenaren eta naturaguneen kudeaketa, ingurumen-aholkularitza, ikerketa eta irakaskuntza biodibertsitatea eta ekosistemekin harremana duten gaiekin.

ONINARRIZKO INFORMAZIOA

Eskolak emateko lekua:

Zientzia eta Teknologia Fakultatea (Leioa).

Irakaskuntza mota:

Eskolan bertakoa.

Hizkuntza:

Gaztelania.

Gutxi gorabeherako prezioa:

2.200-2.400 €.

Egutegia:

Urritik ekainera, goizez eta arratsaldez.

IRAKASTORDUAK/IRAUPENA

60 ECTS / ikasturte 1

Nahitaezko
Gaiak

7,5 ECTS kreditu

Hautazko
Gaiak

27,5 ECTS kreditu

Proiektuak /
Ikerketa-lanak

25 ECTS kreditu

Gutzira

60 ECTS kreditu

PRESTAKUNTZA PROGRAMA

- Kartografia, GIS eta teledetekzioa.
- Proiektuen diseinua eta gestioa, informazio eta difusio-iturriak.
- Ingurune fisikoaren aldakariak eta poluzioa.
- Kostaldeko ekosistemen biodibertsitatea eta funtzionamendua.
- Ibai eta hezegunean bioingeniaritza, birgaitzea eta leheneratzea.
- Poluzioa eta eutrofizazioa.
- Dibertsitate biologikoa ur gezako inguruneetan.
- Oihan-funtzionamendu eta gestioa.
- Zoruen gestioa, birgaitzea eta biokonponketa.
- Lur eta uraren elkarreaginak: ibai, laku, urtegi eta hezeguneen ekologi egoerari buruzko hausnarketa.
- Fauna eta Floraren Kudeaketarako Oinarriak.
- Animalia dibertsitatea lehorreko ingurunean.
- Landaren dibertsitatea lehorreko ingurunean.
- Lege, arau, eta eskumenen markoa.
- Baliabideen babesak, zaharberritze eta gestioa.
- Iberiar penintsulako landaretza eta paisaia.

HARREMANETARAKO

Arduraduna: Javier Loidi Arregui

Tel: 946012451

Posta elektronikoa: javier.loidi@ehu.eus

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK ETA BABESLEAK

